

ERRENDERIAKO IKASTOLA

Boni adiskideak berri on bat eman dit, OARSO berriro argitaratuko zela esanaz. Nik ikastolarekin duten hartu-emanagaitik, pentsatu genuen, ikastola gaia zela nik erabiltzeko egokiena.

Beraz, zertarako eta nolakoa den ikastolaren bizitza aztertzen saiatuko naiz.

Euskera da gure zaharregandik hartu dugun herentzia, horregaitik gure eginkizun bat hizkuntza hori gordetzea da, eta eskubide bat hitz egitea. Mila arrazoigaitik euskera galtzen ari da, hor ditugu Araba, Bizkaia-ko zati haundi bat eta Nafarroa adibide bezala. Gu behartuak aurkitzen gara denon eskubidea den Euskera hori zabaltzea.

Gure bizitza familien barruan egiten zenezgero giro ona zegoen Euskeraz hitz egiteko. Beste ainbat hizkuntza betiko galtzen ari ziren bitartean Euskera mendi artean babestua bere bizitasun guztiarekin mantentzen eta irauten zuen.

Garai berriek eldu zaizkigu, ia denontzat onuragarriak izan badira ez ainbeste Euskerarentzat. Difusio bideak, irriariak, izparringuiak, telebistak, guren etxehetara sartu dira, hizkuntz arrotz bat ekarriaz, beste bide askoekin batera gure hizkuntza eta kulturaren etsai izanez. Nola jokatuko etsai hauen aurka? Bakarka beti egin izan zen eran, ezin egin probetxuko gauzarik. Beharrezkoa zen bide berriak aurkitzea, gizaldi eta gizaldietan iraun duen hizkuntza eta kultura piztu arazteko.

Garai berrien indarrereri, beti historiak eskatu oi digun jokabide personalaz bakarrik kontra egitea, aski demostratua zegoen nahikoa ez zela; askotan erantzunik aurkitzen ez zelako, besteetan erantzun ori etsaien aurka altxatzeko ahulegia zelako. Beraz kultura genuen garai honetan, Euskera indartzeko bide bakarra.

Beraz kultura zen bidea eta beharrezkoa zen Euskera sendotzea bide horren bitartez. Hortarako lehenen behar genuena euskaldun profesionalak ziren eta Euskeragaitik gutiziz beteak gainera.

Euskera piztutzeko biderik egokiena Ikastola da eta bide hau onuragarria izango da, hizkuntza hutsa bere elburu bakarra izaten ez den bitartean, eta bere eginkizuna pertsonaren formazio osora zabaltzen denean, munduko pedagogi berriak iriki dituzten bideak jarraituaz.

Arazoaren konzientzi hartu ondoren eta arazoa honela ikusiz gero beharrezkoa zen erabaki bat artzea, ikastola indartsu eta sendo bat sortuaz. Ikastola, honela oinarritua izango zen:

- Irakasle Euskaldun on batzuk, eta
- Legez egindako soziedade baten bitartez herriaren laguntzarekin kontatuaz.

Ikastolari hasiera eman zitzaion andereño batekin Gero, pixkanaka gehiagotzen joan dira andereño eta irakasleak; irakasle hauek erabat ados datoz ikastolaren elburuekin. Beren obligazioek osoki betez gainera, irakasleak dakazkin arazoak gero eta obekiago erabakitzearren beti saiatzen ari dira beren ezauerak zabaltzen eta haundiagotzen.

Hauek dira irakaslehek banan banaka eman dituzten pausoak eta egindako sakrifizioak. Bainan orain arte egin denarekin konformatzea geroaren heriotzera joatea da. Gizatasunak berak beti du gauzak obeago sortzeko gogoia. Bainan ez dut uste ausartegia izango nintzakenik orain arte sortu duguna uste baina obeagoa izan dela esango ba nuke.

Ikastolaren aurrerapenarako oinarritzat «Kultura Agrupazio ORERETA» egin zen. Hasieran sozio gutxi ziren eta naiz eta hauek gehiagotzen joan ez da sortu Errenderia batek, honelako gauza baterako, eman behar luken laguntza. Uste dugu jendia geroz eta gehiago jausiko dela, ikastola baten garrantzitasuna ikusiaz eta gehiago sartuko dela bere arazoak ulertu eta erabakitzeko. Entrepresa pribatuak, organizazio ofizialak, ulertzekoa den bezala, hasiera batean ez zuten behar ainbat lagundu, hauek ere orain beren diru laguntzak ugariagotzen asi dira.

Euskera Euskal Herri guzieren eskubide bat denez gero, gure elburua denontzat izango litzaken ikastola bat egitea da.

Bainan bi eragozpen dira elburu honen trabarik haundienak:

- Bata irakasle euskaldunen falta, hau da eragozpenik garrantzitsuena honek egiten du guk nahi aina ikasle ezin artua.
- Bigarrena gure ekonomiaren ahuldadea; uste dugu jendea jausiko dela nolakoa den ikastolaren garrantzia ikustean eta orduan bihotzez ahal duena eskeiniko duela.

Azkenik ez litzake egoki egongo artikulua honeri bukaera bat ematea, Bitor IDIAZABAL aitatu gabe utziko ba genu; bera izan bai da Ikastola gaur den errealitate ederra bihurtu duena. Nik uste berak eman duen laguntzarik gabe ain denbora gutxian ainbeste gauza sortzerik ez zela izango. Nere naia da urte askotan jarraitu dezala ain gurea den ERRENDERIAKO IKASTOLA honeri bere laguntza eskeintzen.

Agur

M I K E L

1971 ko Uztaila